

Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

Otsailaren 28an izango da artezkaritza-kontseiluaren hurrengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.



Tanta boletoa

Aurtengo Kilometroak jaia Azpeitiko Ikasberri ikastolari dagokio antolatzea. [Informazio gehiago...](#)

Bestalde, jakinarazten dugu, familia bakoitzeko ikasle zaharrenari datorren ostiralean banatuko diogula Tanta txartel bat. Boleto gehiago eskatu nahi izan ezker, mesedez, usurbil@ikastola.eus helbidera idatzi.



DBH4ko kamiseta eta jertseen salmenta

DBH4ko ikasleek ikasbidairako dirua lor dezaten jertseak eta kamisetak sortu eta salduko dituzte. Neurri desberdinak egongo dira aukeran, helduenak eta haurrenak.

PREZIOAK:

- Jertseak:

Haurrak (7/8, 9/10, 11/12...): 15 €

Helduak (XS, S, M, L, XL, XXL): 20 €

- Kamisetak:

Haurrak (7/8, 9/10, 11/12...): 10 €

Helduak (XS, S, M, L, XL): 10 €



Eskaerak egiteko [inprimaki hau](#) bete behar duzue. Eskaria eskaera kopuruaren arabera egingo da, beraz, **martxoaren 4a** aurretik abisatzea eskertuko genuke inor kamiseta edo jertserik gabe gera ez dadin.

Animatu zaitetzte!

Telefono mugikorrei eta smartwatchei buruzko arautegia ikastolan

Azken urteetan ikasleak ikastolara ekartzen dituzten Smartwatchekin edo erloju adimendunekin, egunerokotasunean arazoak izaten ari gara. Arazo horiek, aipaturiko gailu horiek dituzten jolas, kamera eta aplikazio desberdinek sortzen dizkigute. Bestalde, gure ikasleen adina kontuan hartuta, ulergarria da gailu horien baliabide ugariak ongi kudeatzeko gai ez izatea. Ondorioz, gai horren inguruan ikastolak duen arautegia bidaltzen dizuegu.



- **Debekatuta** dago telefono mugikorren eta smartwatchen erabilpena ikastolako ordutegian, jangela eta zaintza barne.
- Gailua ezingo dute soinean eraman, motxilan gordeta eraman beharko dute.
- Ikastola ordutan itzalita edukiko da.
- Irteeretan: egun edo gaua pasatzeko irteeretan, telefono edo smartwatchen erabilpena ikastolan arautzen den berbera da.
- Aipaturiko arauak hautsiz gero (ikastolan edo irteeretan), lehenengo aldian ikasleari gailua kendu egingo zaio, gurasoei deitu eta gailua gurasoei itzuliko zaie.

Xake-topaketa

Usurbilgo Udalak, aurten ere, otsailerako XAKE-TOPAKETA prestatu du. Gogoratu, bigarren topaketa **gaur** dela, **17:00etan, LH 4tik gorako haur eta gaztetxoentzat** (izen-ematea oso ugaria bada, bi talde egingo ditugu). Izen-ematea Sutegi Liburutegian.



HAUR-HEZKUNTZA

Bilera pedagogikoak

Otsailaren 27an eta 28an, HHko familiei zuzendutako bilera pedagogikoak egingo ditugu.

HH3: otsailaren 27an, 16:45ean.

HH4: otsailaren 27an, 16:45ean.

HH5: otsailaren 28an, 16:45ean.

Oharrak: Zaintza zerbitzua egongo da.

Bilerak, haurren geletan egingo ditugu.



Zorriak HH4

4 urteko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU **DENOK** ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

Irteera LH3

LH3. mailako ikasleek, **martxoak 1ean**, ostirala, Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentrora, TOPIC-era, irteera egingo dugu. Egun osoko irteera denez, ikasleek hamaiketakoa, bazkaria eta ura eramane beharko dituzute.

